

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko abenduaren 9tik 13rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: ZEW ALEMANA



Datuaren analisia

Alemaniarako inbertitzaileen konfiantzak gora egin du nabarmen abenduan, ZEWk prestatutako adierazlearen arabera, aurreko hileko -2,1etik 10,7 puntuetara igo baita abenduan; bere mailarik altuena 2018ko otsailetik. Oraingo egoera neurtzen duen osagaiak ere hobera egin du aurreko hiletik, baina aurreikusitakoa baino modu askoz apalagoan: -24,7tik -19,9ra pasa da. Hala ere, emaitza espero baino hobea izan da (aurreikusitakoa, -22,0). ZEWko presidentek adierazi zuen hobekuntza horrek Alemaniako esportazioek eta kontsumo pribatuak «espero baino bilakaera hobea izango» dutelako itxaropenari erantzuten diola, aurreikusitakoa baino handiagoa izan zen urriko superabit komertzialaren ondoren, bai eta EBk hirugarren hiruhilekoan izandako hazkunde sendo samarrari eta lan-merkatu alemaniarren egonkortasunari ere. Hala ere, Alemaniako ekonomia oraindik egoera «nahiko ahulean» dagoela azaldu zuen. Euroguneari begira, irakurketak konfiantzaren hobekuntza nabaria erakusten du (-1etik 11,2ra igaro da).

Adierazlearen azalpena

Alemaniarako Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomiko" islatzeko balio du. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hilabeteetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: EBZ-REN BILERA



Datuaren analisia


Lagardek, erakundeko presidente berriak, bere horretan mantendu ditu Draghirengandik oinordetzan harturiko diru-pizgarriak. Hala ere, prentsaurrekoan aurreratu zuen diru-estrategiaren azterketa «sakon» bat egiten hasiko direla urtarrilean, eta egonkortasun zantzuak ikusten dituela, arriskuak ez baitira hain handiak. Halaber, «% 2ko mailatik nahikoa hurbil, baina beherago, dagoen inflazio aurreikuspenen konbergentzia sendoa ikusi arte, tasek orain dauden mailetan, edo maila txikiagoetan, jarraitzea» espero dutela berretsi zuen. Horrez gain, EBZk hurrengo hiru urteetarako aurreikuspen makroekonomikoak argitaratu ditu. Diru-erakundeak espero du Euroguneko BPGd-a % 1,2raino haztea aurten, eta % 1,1eraino 2020an. 2021erako hazkunde aurreikuspenak % 1,4an mantendu ditu, eta 2022rako hazkunde-erritmoa % 1,4koa izatea espero dute. Aurreikusatiko KPIa % 1,2koa da aurten, % 1,1ekoa 2020an, % 1,4koa 2021ean eta % 1,6koa 2022an.

Adierazlearen azalpena

Europako Banku Zentrala Euroguneko 19 estatu kideen diru-politika kudeatzeaz arduratzen den erakundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka egoitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta bere diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. Euro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete ditzan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-inflazionista bati eustea.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisisia

Estatu Batuetako KPI orokorra % 0,3 igo zen azaroan, espero baino hamarren bat gehiago. Urte arteko kopuruetara ekarrita, inflazioa % 1,8tik % 2,1era igo zen (aurreikusitakoa, % 2,0), urtebetea izandako daturik handiena. Energia eta etxebizitza izan ziren azaroko inflazioa gorantz bultzatu zuten faktore nagusiak. Bestetik, energiaren prezioak % 0,8 igo ziren aurreko hiletik, gasolinaren eta erregaiaren kostuen igoerak eraginda, eta ostatuen prezioak % 0,3raino egin zuen gora.

Azpiko inflazioak, energiaren eta elikagaien prezioak kanpo uzten dituenak, oso hegazkorak direlako, % 0,2 egin zuen gora iragan hilean, eta, 2018ko azaroarekin alderatuta, % 2,3an mantendu zen.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: FEDen BILERA



Datuaren analisia

Erreserba Federalak erabaki zuen interes-tasak % 1,75 eta % 1,5 bitartean mantentzea (tarte horretan daude urritik), urtean hiru beherapen egin ondoren. FEDeko kide gehienek uste dute tasak nahikoa baxu daudela dagoeneko, eta ez dutela beherapen berririk behar 2020an. Igoerarik ere ez da espero, 2021era arte ez behintzat. Inflazioarekin lotzen dute tasen igoera. Erakundearen arabera, diru-politikarekiko orain duten jarrera aproposa da jarduera ekonomikoaren hedapenari eusteko, hazkunde moderatua izaten ari dena. Halaber, banku zentralak bere aurreikuspenak eguneratu zituen, eta ez zuen inolako aldaketarik egin irailean aurreratutako datuetan. Aurten, hazkunde ekonomikoa % 2,2koa izatea espero da, eta 2020an moteltze txiki bat izatea eta % 2ra jaistea. Inflazioari dagokionez, Fed-ek urteko % 1,5eko gorakada txiki bat aurreikusten du 2019 amaierarako, eta % 1,9koa 2020rako.

Adierazlearen azalpena

Federal Reserve System (FED) Estatu Batuetako banku-sistema zentrala da. Herrialdeko diru-politikako erabakiak hartzea, banku-erakundeak ikuskatu eta arautzea, finantza-sistemaren egonkortasuna mantentzea eta gordailu-erakundeei, Estatu Batuetako gobernuari eta atzerriko erakunde ofizialei finantza-zerbitzuak eskaintzea dira bere egitekoak. Bere diru-politikaren bitartez, enplegu erabatekoa, prezioen eraginkortasuna (inflazioa eta deflazioaren prebentzioa barne) eta epe luzean interes-tasak moderatzea dira lortu nahi dituen helburuak.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
12/16	Japonia	Japoniako Jibun Bank Composite PMIa	--
12/16	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 5.0
12/16	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 7.6
12/16	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.0
12/16	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	49.9
12/16	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	50.7
12/16	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	% 0.4
12/16	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	49.5
12/16	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	4.0
12/16	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
12/17	Italia	Balantza komertziala guztira	--
12/17	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 3.9
12/17	Eurogunea	Balantza komertziala SA	20.0b
12/17	Estatu Batuak	Hasierako eraikuntzak	1343k
12/17	Estatu Batuak	Eraikitze baimenak	1414k
12/17	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 2.2
12/17	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.8
12/18	Japonia	Balantza komertziala	-¥355.5b
12/18	Alemania	IFO enpresen egoera	95.5
12/18	Alemania	IFO aukerak	93.0
12/18	Alemania	IFOn gaur egungo ebaluazioa	98.1
12/18	Erresuma Batua	Hileko KPIa	% 0.2
12/18	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1.0
12/19	Frantzia	Enpresen konfiantza	104
12/19	Erresuma Batua	Banku-tasa Ingalaterrako Bankua	% 0.750
12/19	Estatu Batuak	Negozioen egoera Philadelphiako Fed	8.0
12/19	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	225k
12/19	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.44m
12/19	Japonia	BOJen politikaren oreka mota	--
12/20	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.5
12/20	Erresuma Batua	Kontsumitzaileen konfiantza GfK	-14
12/20	Alemania	Kontsumitzaileen konfiantza GfK	9.8
12/20	Italia	Sentimendu ekonomikoa	--
12/20	Espainia	Balantza komertziala	--
12/20	Erresuma Batua	Hiruhileko BPGd	% 0.3
12/20	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 2.1
12/20	Eurogunea	Kontsumitzaileen konfiantza	-7.0
12/20	Estatu Batuak	PCE deflektorea MoM	% 0.2
12/20	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	99.2
12/20	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
12/20	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--
12/20	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	-3

BURTSA:

Aste positiboa mundu osoko burtsa-indizeentzat. Erresuma Batuko hauteskundeak, FEDen eta EBZren 2019ko azken bilerak eta gerra komertziala izan ziren merkatuen interes-gune nagusiak. Maila komertzialean, AEBek eta Txinak akordio komertzialaren lehen faserako adostasuna lortzea ospatu zuten inbertitzaileek, tregoa aro berri bat ireki baitzen formalki. Bada, akordio horren lehen ondorio gisa, berrogeialdian geratu dira iragan larunbaterako aurreikusita zeuden Txinaren aurkako 156.000 milioi dolarreko muga-zergak, eta txikitu egin dira indarrean daudenak. Txinako inportazioei ezarritako % 25eko tasek indarrean jarraituko dute, baina erdira murriztuko dira % 15eko kargak, 120.000 milioi dolarretan balioztatutakoak. Trukean, Pekinek honako konpromisoak hartu ditu: 50.000 milioi dolarreko balioa duten nekazaritza-produktu gehiago erostea, Estatu Batuetako jabetza intelektualeko eskubideak hobeto babestea eta Txinako finantza-zerbitzuen sektorerako sarbidea erraztea. Banku Zentralek, bestalde, ez zuten aldaketarik egin euren diru-politikan. Fed-ek, hurrengo urtean tasak murrizteko aukerari ateak itxi bazion ere, 2020rako horien egonkortasuna aurreikusi zuen ia aho batez, burtsentzat lagungarri izan zena. Halaber, Lagarde EBZko presidente berriaren hitzek arrisku-aktiboen alde egin zuen, beheranzko hazkunde ekonomiko baten arriskuak orain txikiagoak direla baieztatu zuenean. Politikan, Boris Johnson buru duten kontserbadore britainiarrek aise irabazi zituzten Erresuma Batuko hauteskundeak. Johnsonen gehiengo osoari esker, gainera, Bruselarekin urrian adostutako Europar Batasunetik ateratzeko akordioa onartu ahal izango du orain, ondoren 2020ko urtarillean Brexita ezartzeko.

ERRENTA FINKOA:

Arriskuarekiko ezinikusia txikiagoa izan arren, tasek ez zuten gora egitea lortu asteen. Bundak ez gora eta ez behera amaitu zuen astea, - % 0,29an, eta Europako herrialde periferikoek diferentzialak estutu zituzten Alemaniarekin. Espainiak 8 oinarritzko puntutan murriztu zuen bere arrisku-prima, 70 op-raino. AEBetan, 10 urterako treasury bonuak op 1 egin zuen behera, % 1,82ra. Kredituaren diferentzialak, berriz, estutu egin ziren.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Fed-en bileraren ondoren, dolarra pixka bat ahuldu zen gainerako dibisa nagusien aurrean. Euroak, bestetik, 1,11 dolarren gaintetik mantendu zuen dollarrarekiko bere truke-tasa. Nabarmenezkoa da liberak izan zuen gorakada, Johnsonek gehiengo osoa lortu zuen hauteskundearen emaitzari esker. Lehengaei begira, petrolioaren prezioa % 2,20 igo zen, AEBen eta Txinaren arteko akordio komertzialak munduko hazkundera, eta, horrenbestez, petrolio gordinaren eskaria hauspotuko dutelako itxaropenarekin. Urrearen balioa, bestetik, % 1,11 igo zen, 1.476,33 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald. 2019
MSCI WORLD (Local)	1.774,90	0,80	23,14
IBEX 35	9.563,70	1,93	11,99
DJ EURO STOXX 50	3.731,07	1,05	24,31
DJ STOXX 50	3.364,00	0,86	21,88
FTSE	7.353,44	1,57	9,29
S&P 500	3.168,80	0,73	26,41
Dow Jones	28.135,38	0,43	20,61
NASDAQ	8.734,88	0,91	31,64
NIKKEI 225	24.023,10	2,86	20,03
MSCI GORAKORRAK (Tokioa)	60.370,40	2,90	13,00
MEXBOL	44.254,43	5,52	6,28
BOVESPA	112.564,90	1,30	28,08
SHANGHAI	3.109,70	1,91	19,08
Errusia Rts Mosku	1.501,42	3,66	40,49

Gobernuen tasak	Maila	% Aldaketa asteen	Ald 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,62	0,01	-0,01
ESPAINIA 2 URTE	-0,39	-0,01	-0,15
AEB 2 URTE	1,60	-0,01	-0,88
ALEMANIA 10 URTE	-0,29	0,00	-0,53
ESPAINIA 10 URTE	0,41	-0,08	-1,00
AEB 10 URTE	1,82	-0,01	-0,86
ALEMANIA 30 URTE	0,23	-0,01	-0,65
ESPAINIA 30 URTE	1,28	-0,08	-1,33
AEB 30 URTE	2,25	-0,02	-0,76
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	46,21	-1,01	-42,16
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	215,69	-5,45	-138,00

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald
Dolarra / Euroa	1,11	0,53	-3,03
Yena / Euroa	121,52	1,17	-3,32
Libera / Euroa	0,83	-0,99	-7,21

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa asteen	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	66,90	2,20	25,82
Urrea	1.476,33	1,11	15,11

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.